

SAN SEBASTIAN TURISMO-DONOSTIA TURISMOA, SA-ren 2022ko LAN-ESKAINZA PUBLIKOAREN MODALITATE EZBERDINEI DAGOZKIEN HAUTAKETA-PROZESU BEREZI ETA SALBUESPENEZKOAK.

- HAUTAKETA BATZORDEAREN IZENDATZEA.

2022ko abenduaren 28an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen San Sebastian Turismo-Donostia Turismoa SAREN 2022ko Enplegu Publikoaren Eskaintzatik eratorritako hautaketa-prozesuen deialdia.

Era berean, deialdi horri buruzko informazio guztia argitaratu da erakundearen webgunean.

Deitutako hautaketa-prozesuak honako hauek dira:

Hautaketa prozesua	Lanpostua	Hautaketa sistema	Sarbide modalitatea	Plazak guztira	Euskara	Enplegu eskaintza publikoa
1	Harrera eta informazio agentea	Oposizio lehiaketa	Orokorra	1	B2 nahitaezkoa	2022ko egonkortze bereziko tasa
2	Harrera eta informazio agentea	Lehiaketa	Orokorra	2	B2 nahitaezkoa	2022ko salbuespenezko egonkortze tasa
3	Komunikazio arduraduna	Lehiaketa	Orokorra	1	C2 nahitaezkoa	2022ko salbuespenezko egonkortze tasa
4	Marketin kudeaketako teknikaria	Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	2022ko salbuespenezko egonkortze tasa
5	Produktuaren eta Azken Publikoaren merkataritza-kudeaketako teknikaria	Lehiaketa	Orokorra	1	C1 nahitaezkoa	2022ko salbuespenezko egonkortze tasa
6	Zuzendaritzako idazkaria	Lehiaketa	Orokorra	1	B2 nahitaezkoa	2022ko salbuespenezko egonkortze tasa

Prozesu horiek arautzen dituzten oinarri orokorren bosgarren atalean ezartzen da hautaketa-batzorde bat eratuko dela, eta batzorde horretako kideak izendatzeko, inpartzialtasun- eta profesionaltasun-printzipioak errespetatuko direla.

Aurrekoa ikusita, Zuzendaritza Gerentzia honek, San Sebastián Turismo-Donostia Turismoa SAREN Administrazio Kontseiluak emandako ahalmenez baliatuz, honako erabaki hau hartu du:

EBAZPENA

1.- Hautaketa-batzordeko kide izendatzea lehen aipatutako hautaketa-prozesuetarako:

- Isabel Aguirrezabala Wurster andrea, San Sebastian Turismo-Donostia Turismoa SAko Zuzendari-Gerentea, presidente gisa.
- Natalia Iglesias Lamela andrea, San Sebastian Turismo-Donostia Turismoa SAko Antolamendu eta Administraziaren arduraduna, batzordekide gisa.
- Arantza Santamaría Pérez andrea, San Sebastian Turismo-Donostia Turismoa SAko langileen ordezkaria, batzordekide gisa.

2.- Honako hau erakundearen www.sansebastianturismoa.eus webgunean argitaratzea, "kontratazioa" atalean.



Stua. Zuzendari-Gerentea
Donostian, 2024ko apirilaren 29an